

1.- Zein kasutan hiru egoera aldaketa prozesuek beroa xurgatu behar dute gertatu ahal izateko?

- A. Fusioa, lurruntzea eta sublimazioa.
- B. Solidotzea, kondentsazioa eta sublimazioa.
- C. Fusioa, kondentsazioa eta solidotzea.
- D. Fusioa, kondentsazioa eta sublimazioa.

2.-Substantzia hauen fusio eta irakite temperaturak aztertu. Adierazi zein egoeratan (solidoa, likidoa edo gasa) egon diren 37°C-tan.

Substantzia	Fusio-tenperatura (°C)	Irakite-tenperatura (°C)	Egoera 37°C-tan
Burdina	1535	2750	
Merkurioa	-38	357	
Oxigenoa	-219	-183	

3.-Jakinarazi Lurrean grabitate indarra Marten baino handiagoa dela, 70 kg-kopertsona batek non pisatuko du gehiago, Lurraren gainazalean edo Marten gainazalean?



- A. Lurrean zein Marten, pertsonak berdin pisatuko du grabitate indarrak ez baitu eragiten pertsonaren pisuan.
- B. Marten gehiago pisatuko du, Marteko gainazaletik zentrorra dagoen distantzia Lurrean baino txikiagoa delako.
- C. Lurrean gehiago pisatuko du, grabitate indarra handiagoa delako.
- D. Pertsona bi planeten gainazalean egonik, pisu diferentzia baztergarria izanen da.

4.-Lapiko batean ura berotzen badugu eta beste batean alkohola, biak tenperatura berdinarekin, zer substantzia lurrunduko da lehenago?

- A. Ura
- B. Alkohola
- C. Biak batera
- D. Ez dira inoiz lurrunduko

Substantzia	Fusio-puntua (°C)	Irakite-puntua (°C)
Ura	0	100
Alkohola	-117	78

5.-Dentsitate desberdinetako hiru likido daude, A, B eta C. Ordena itzazu dentsitate handienetik txikienera.



6.-Egin itzazu hurrengo unitate aldaketak

A.-13,6 g/cm³ → kg /dm³

B.-1000kg/m³ → g/cm³

C.-4,5 g / cm³ → mg/dm³

D.-2,75cg/dm³ → mg/cm³

E.-80mg/ cm³ → g/dm³

F.-40kg/dm³ → g/cm³

G.-12mg/ mm³ → dg/cm³

H.-0,9g /cm³ → kg/m³

I.-930,5 mg/dm³ → kg/m³